

KONTROL MOZIOA

HIRIKO KIROL JARDUERETAN EUSKARAREN ERABILERA DELA ETA

Naiara Sampedro Perezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko uztailaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da

JUSTIFIKAZIOA

Donostian antolatzen diren kultur jarduerekin batera, herritarren parte hartzea gehien sututzen duten jarduerak kiroletakoak dira.

Amstel Radler Donostiako Paddle Tourra Fortuna Kirol Elkarteak antolatutako Stand Up Paddle Txapelketa da. Hau Donostiako leku ospetsuenetatik igarotzen da, Kontxako badiatik eta Urumeatik barrena, eta 12 urtetik gorako gizon zein emakumeek parte hartzen dute.

Beste zenbait jaialdirekin batera, honako hau ere hiriko gazte eta helduen erreferentzia izanik, bozgorailuetatik helarazitako jakinarazpenak gaztelania hutsean egin izanak kezkatu gintuen. Izan ere, ez da Donostiako Kirol Patronatuak antolatu edo babestu dituen jaialdietan euskararekiko irizpideak urratu diren lehen aldia.

Hori dela dela eta, uztaileko batzordean, euskararen normalizazioan urratutako neurrien inguruan interpelatzea erabaki genuen. Ez soilik ekimen honetan gertatutakoa salatzeke, baizik eta Donostia Kirol Patronatuan euskararekiko dagoen ardura sustatzeko.

Honen aurrean jasotako erantzunak are gehiago kezkatu gaitu. Alde batetik, kirol instalazioak erabiltzeko, komunikazioek bi hizkuntza ofizialetan egon behar dutela azaldu zitzaigun eta horien erabilpenerako alokairu kontratuetan azaltzen dela adierazi zitzaigun. Eta udal administrazioari dagokion barneko, kanpoko edo erabiltzaileekiko edozein komunikazio bi hizkuntzetan bermatu behar dela inork ez du zalantzan jartzen. Modu berean, ez ohiko kirol jardueri diru laguntzak emateko irizpideetan euskararen erabilera baloratzen dela erantzun zitzaigun.

Baina, kasu honetan, kirol klub batek antolatutako jarduera bat dela adierazi zitzaigun eta ez dela kirol instalazio batean izan, baizik eta gune publiko batean. Horregatik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Donostiako Udaleko 5. Plangintzaldian, Donostiako Udalean eta udalerrian euskararen erabilpena normalizatzeko 25. artikuluekin bat etorriz, bide publikoan egiten diren jardueretan euskara edo euskara eta gaztelania, ahoz zein idatziz, erabili behar dela jasotzen dela gogorarazi beharra dago. Eta zehaztu diren hizkuntza irizpideak betetzeko, Donostiako Udalak baimenak emateko baldintzen artean hizkuntza baldintza hauek txertatu behar dituela ere jasota dago.

Txertatzearekin, beteko dela ulertzen dugu eta ez da horrela izaten ari. Egoera zuzentze aldera, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA:

- .- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Udalean eta Udalerrian euskaren erabilpena normalizatzeko 25. artikulua betetzea.
- .- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Euskararen Erabilera Normalizatzeko Donostiako Udaleko 5. Plangintzaldian jasota dagoenaren arabera bide publikoen jarduerak bete beharreko neurriak bermatzea.
- .- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2015-2019 Donostiako Euskaren Plan Orokorrean jasota dagoen moduan, kirol elkarte eta klubekin aliantzak bilatuz, urtea amaitu aurretik, hizkuntza ohiturak iraunkorki txertatzeko esku hartzeak finkatzea.
- .- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostia Kirol Patronatuko Euskara Batzordea sustatzea eta urtea amaitu aurretik, euskararen normalizaziorako araudi eta plangintzetan jasotakoa bete dadin, 2017an landuko diren erronkak eta helburu zehatzak definiturik izatea.

Donostian, 2016eko uztailaren 15ean

Naiara Sampedro Perez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia